

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Prozedura irekia, Arabako Lurralde Historikoko 1:5000 eskalako Datu Base Geografikoaren (BTA5000_DFA) mantentze lanak kontratatzeko

Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 2ko 236/2016 Foru Dekretua betez, eta indarreko araudiaren arabera, prozedura irekirako deia iragartzen da Arabako Lurralde Historikoko 1:5000 eskalako Datu Base Geografikoaren (BTA5000_DFA) mantentze lanak kontratatzeko.

1. Erakunde esleitzaila.

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia.

b) Espedientea izapidetuko duen bulegoa: Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua.

c) Espedientearen zenbakia: AHÍ-034/2016-K09.

2. Kontratuaren xedea. Arabako Lurralde Historikoko 1:5000 eskalako Datu Base Geografikoaren (BTA5000_DFA) mantentze lanak.

a) Xedearen azalpena: Eguneratuko den azalera baldintza teknikoen agiriko I. eranskinean zehazten dena izango da.

b) Loteak eta zenbakia: ez dagokio kasu honetan.

c) Gauzatzeko lekua: Arabako Lurralde Historikoa.

d) Gauzatzeko epea: hamabi hilabete. Lehenengo epe partziala: 2016ko abenduaren 31rako amaituta eta entregatuta egongo da eguneratu beharreko azaleraren orrien 1/4 gutxienez. Bigarren epea: lana bukatzen denean.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era.

a) Izapidetzea: arrunta

b) Prozedura: irekia.

Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 2ko 236/2016 Foru Dekretuaren bidez onartua.

4. Kontratuaren aurrekontua: 78.000,00 euro, gehi BEZa (16.389,00 euro).

5. Bermeak.

Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

Behin betikoa: esleipen aurrekontuaren ehuneko 5 (BEZa aparte). Justifikazioa, salbuetsita egonez gero

6. Agiriak eta argibideak eskuratzea:

a) Erakundea: Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan edo Arabako Foru Aldundiaren web orrian (www.araba.eus>Kontratatzailaren profila).

b) Probintzia plaza, 5, 1. solairua.

c) Herria eta posta kodea: Gasteiz 01001.

d) Telefonoa: 945 181818. Luz.: 52864 52867 edo 52319.

e) Telefaxa: 945 181764

f) Posta elektronikoa: urban@araba.eus

7. Kontratistaren berariazko betekizunak.

Ez da eskatzen sailkapenik.

8. Eskaintzen edo parte hartzeko eskaeren aurkezpena.

a) Aurkezteko epea: 15 egun, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio klausulen agirian adierazten direnak.

c) Aurkezteko lekua:

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra (Probintzia plaza 5, beheko solairua, 01001 Gasteiz) Telefonoa.: 945 181818. Faxa: 945 181754.

d) Lizitatuzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: 3 hilabete.

e) Aldaeren onarpena: ez.

9. Eskaintzak irekitzea.

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondorengo hirugarren egun baliodunean, bulego teknikoetan (Probintzia plaza 5, 1. solairua) (C gutun azala).

Lizitatuzaileei behar bezala jakinarazten zaien egunean irekiko dira A gutun azalak.

10. Argibide gehiago. Ikusi administrazio klausulen agiria eta baldintza teknikoaren agiria.

11. Iragarki gastuak. Esleipendunak ordainduko ditu.

12. Iragarkia Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialera bidali zen eguna: ez dagokio.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 2a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO